

HERRITARRAREN ZIURTAPEN POLITIKA

Erreferentzia: Herritarraren ziurtapen-politika
Bertsio zk.: 1.4
Data: 2018ko abenduaren 04a

© IZENPE 2018

Dokumentu hau IZENPErena da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke.

 IZENPE
Beato Tomás de Zumarraga 71 - 1ª Planta
01008 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 067 723
www.izenpe.com



AURKIBIDEA

1	DESKRIBAPENA	3
1.1	DEFINIZIOA	3
1.2	ERABILERA-ESPARRUA	4
2	ZIURTAGIARIAREN BIZI ZIKLOA	4
2.1	IDENTITATEA EGIAZTATZEA ETA ZIURTAGIRIA ESKATZEA	4
2.2	ZIURTAGIRIA JAILKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA	5
2.3	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA	6
2.4	ZIURTAGIRIA EZEZTATZEA	6
2.5	ZIURTAGIRIAK BERRITZEA	7
3	ZENBATEKOA	7
4	ZIURTAGIARIAREN PROFILA	7
5	ALDAKETAK	7
5.1	ALDAKETAREN KUDEAKETA	7
5.2	ALDAKETEN KONTROLA_1. 0 BERTSIOTIK 1.1 BERTSIORA	8
5.3	1.1. BERTSIOTIK 1.2. BERTSIORA	8
5.4	1.2. BERTSIOTIK 1.3. BERTSIORA	8
5.5	1.3. BERTSIOTIK 1.4. BERTSIORA	9



Dokumentu honek identifikazio elektronikoko baliabideei eta ziurtagiriei dagokien Politika jasotzen du. *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA* enpresak (aurrerantzean IZENPE) herritarrentzat jaulki du ziurtagiri hori.

Dokumentu honen helburua da IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* ziurtagiri mota horretarako definitutakoa zehaztea eta osatzea.

1 DESKRIBAPENA

1.1 Definizioa

Politika honetan arautzen diren identifikazio-baliabideak 910/2014 Araudian ezarritakoaren arabera jaulkitzen dira —*910/2014 Araudia, uztailaren 30ekoa, 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoa eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzkoa (aurrerantzean eIDAS)*—.

Identifikatutako pertsona fisikoa izango da harpideduna. 16 urte baino gehiago izan beharko du.

IZENPEk identifikazio- eta sinadura-baliabide hauek jaulkitzen ditu:

➤ B@k

Pertsona fisikoak elektronikoki identifikatzeko baliabide bat da, identifikatzeko eta sinatzeko aukera ematen duena. Elementu hauek osatzen dute:

- **Erreferentzia-zenbaki** bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin/pasaportearekin bat datorrena.
- **Pasahitz** bat.
- **Ziurtagiri kualifikatu gabe** bat, IZENPEren HSM batean jaulkitzen dena eta sinadura egintzetarako baliagarria izango dena.
- Gainera, kautotzeko beste **faktore biometriko** batzuekin osa daiteke, hala nola hatz-markarekin edo aurpegi-identifikazioarekin.

B@k baliabideak aukera emango du kontsultak eta tramiteak on line egiteko euskal administrazioen zenbait zerbitzutan.

➤ B@kQ

Pertsona fisikoak elektronikoki identifikatzeko baliabide bat da, identifikatzeko eta sinatzeko aukera ematen duena. Elementu hauek osatzen dute:

- **Erreferentzia-zenbaki** bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin bat datorrena.
- **Pasahitz** bat.
- **Koordenatu-joko** bat, 16 posizio izan ditzakeena.
- **Ziurtagiri kualifikatu** bat, IZENPEren HSM batean jaulkitzen dena eta sinadura egintzetarako baliagarria izango dena.
- Gainera, kautotzeko beste **faktore biometriko** batzuekin osa daiteke, hala nola hatz-markarekin edo aurpegi-identifikazioarekin.



B@kQ baliabideak aukera emango du kontsultak eta tramiteak on line egiteko euskal administrazioen zenbait zerbitzutan.

➤ **Herritarraren txartela,**

Txartela / Token USBan jaulkitako ziurtagiri kualifikatua.

IDENTIFIKAZIO BALIABIDEA	ZIURTAGIRIA	EUSKARRIA	OIDa	ZIURTATZE MAILA eIDAS
B@K	Kualifikatu gabea	HSMa	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.5	Txikia
B@KQ	Kualifikatua	HSMa	1.3.6.1.4.1.14777.2.18.3	Oinarrizkoa
Herritarraren txartela	Kualifikatua	Txartela / Token USBa	eIDAS profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.6	Handia
			eIDAS aurreko profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.18.1	Ez dago erabilgarri

1.2 Erabilera-esparrua

Erabiltzaileak BAK, BAKQ edo ziurtagiria erabiliko du ziurtagiria erabiltzea onartzen duten hirugarren batzuek eskainitako zerbitzuetan, betiere *Terminoak eta baldintzak* dokumentuan eta IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* (ZPD) definitutako baldintzekin eta mugekin. Bi dokumentu horiek www.izenpe.com web-orrian argitaratuta daude.

2 ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA

2.1 Identitatea egiaztatzea eta ziurtagiria eskatzea

IZENPEk eskatzailearen identitatea egiaztatuko du modu hauetako edozeinetan:

➤ Aurrez aurre.

Eskatzaileak www.izenpe.com web-gunera sartu eta ziurtagiria jaulkitzeko eskaera osatuko du; gainera, hitzordua eskatuko du erregistro-entitatearen aurrean bertaratzeko eta beharrezko dokumentazio identifikatzailea eramango du,

- Espainiako hiritarra bada, NANA, pasaporte edo gida-baimena.
- Europar Batasuneko/Europako Esparru Ekonomikoko hiritarra bada, AIZ eta pasaporte edo haien herrialdean baliokidea den nortasun-agiri nazionala.
- Europar Batasunaz kanpoko hiritarra bada, AIZ eta pasaporte.

Eskatzailearen identifikazioa ezin bada goian adierazitako moduan egin, IZENPEk zehaztuko du kasu kasu identifikaziorako beharrezkoa den dokumentazioa.



Eskatzaileak identifikazio-dokumentuen fotokopia gehitu beharko du, edo IZENPERi baimena eman beharko dio datuak Administrazio eskudunaren aurrean egiaztatzeko, eskaera-formularioaren bitartez.

➤ Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren sinadura notarioak egiaztatzea.

Eskatzailea

- *Ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* osatu eta sinatuko du.
- Ziurtagiria *erabiltzeko terminoak eta baldintzak* onartuko ditu.
- Notarioak eskaeraren sinadura legitimatuko du.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du IZENPE SAREN helbidera –TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ–.

➤ Edo indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu bidez.

Horretarako, eskatzailea www.izenpe.com web-gunera sartuko da, eta ziurtagiria eskatzeko eskaera sinatuko du, pertsona fisikoko ziurtagiri kualifikatu bidez edo entitatearen / nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiri bidez, IZENPEK jaulkitakoak biak.

BAK baliabideak ziurtagiri kualifikatu gabe bat txertatzen duenez gero, ez da aplikatzekoa izango goian aurrez aurreko identifikazioaren inguruan adierazitakoa.

2.2 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

➤ B@K

IZENPE

- *Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako helbideetara igorriko dio eskatzaileari:
 - Baieztapeneko mezu elektronikoa.
 - Aldi baterako pasahitza. Erabiltzaileak erregistro-prozesuan aldatu beharko du pasahitza.
- Ziurtagiri kualifikatu gabe bat jaulkiko du. IZENPERen HSM batean jaulkiko du, eta sinadura egintzetarako izango da baliagarria.

➤ B@kQ

IZENPE

- *Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako helbideetara igorriko dio eskatzaileari:
 - Koordenatu-jokoa duen mezu elektronikoa.
 - Aldi baterako pasahitza. Erabiltzaileak erregistro-prozesuan aldatu beharko du pasahitza.
- Ziurtagiri kualifikatu bat jaulkiko du. IZENPERen HSM batean jaulkiko du, eta sinadura egintzetarako izango da baliagarria.



➤ TXARTELA / TOKEN USBa

- Bertaratuta ematea.

IZENPEk eskatzaileari edo hirugarren baimenduari emango dio ziurtagiria, PINa eta hori desblokeatzeko kodea (PUKa) —hirugarren baimenduak baimen sinatua eta notarioak legitimatua aurkeztu beharko du—.

- Bertaratu gabe ematea.

IZENPEk *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera bidaliko dizkio ziurtagiria eta gakoak eskatzaileari. Bi bidalketa bereizitan bidaliko dizkio, betiere harpidedunari soilik ematen zaizkiola egiaztatzeko moduan.

2.3 Ziurtagiria egiaztatzea

Sinatzaileak, ziurtagiria jaulki, eta 15 egun baliodun izango du behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, eta, beharrezkoa bada, IZENPERi funtzionamendu-akatsak dituela jakinarazteko.

Funtzionamendu-akatsak kausa teknikoen ondoriozkoak direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoa, eta abar) edo IZENPERi egotz dakizkiokeen ziurtagiriko datuetako erroreak direnean, orduan soilik ezeztatuko du IZENPEk ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

2.4 Ziurtagiria ezeztatzea

➤ Ziurtagiria ezeztatzeko eskaera

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:

- Harpidedunak, ziurtagiria haren izenean jaulki denean.
- IZENPEk, IZENPEko eta erregistro-entitateetako administratzaileek baimena dute azken entitateko harpidedun-ziurtagiriaren ezeztapena eskatzeko, baina soilik ZPDan identifikatutako arrazoien ondorioz.

➤ Ezeztatzeko prozedura

Ziurtagiria ezeztatzea eskatzen duenak IZENPERen aurrean tramitatuko du *ziurtagiria ezeztatzeko eskaera*.

Ziurtagiria edozein unetan ezeztatu ahal izango da, eta ziurtagiria lapurtu edo galdu denean beti. Bide hauetatik egingo da:

- Bertaratuta, IZENPERi www.izenpe.com web-gunean hitzordua eskatuta.
- Posta bidez, eskatzailearen sinadura notario aurrean sinatuta eta legitimatuta duen *ziurtagiria ezeztatzeko eskaera* bidalita.
- Telefono bidez, 902 542 542 telefonora deituta.
- On line, www.izenpe.com helbidean.



Telefono bidez eta on line ezeztatu nahi izanez gero, identifikaziorako beharrezkoa izango da:

- Telefono bidez identifikatzeko pasahitza.
- NAN/AIZ
- Harpidedunaren jaiotze-data.
- Euskarria

➤ Ezeztatzeko arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke (www.izenpe.com).

2.5 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean berritu ahal izango da ziurtagiria. Honela egin daitezke:

- On line: ziurtagiriak indarrean egon beharko du, eta aurrez aurreko identifikazioa edo baliokidea eskatuko da, ziurtagiri berria jaulkiko bada. Eskatzen diren egiaztapenak egin ondoren, IZENPEk ziurtagiria jaulkiko du, dokumentu honen “2.2 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura” atalean zehaztutakoaren arabera. *Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera bidaliko dio ziurtagiria eskatzaileari.
- Bertaratuta: IZENPEk “2.2 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura” atalean zehaztutakoaren arabera tramitatuko du berritzea.

3 ZENBATEKOA

IZENPEk urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak bere www.izenpe.com web-gunean.

Ordaintzeko eskaintzen diren aukerak:

- Elektronikoki sinatutako jaulkipen-eskaeraren kasuan,
 - On line ordainketa, ordainketa-pasabidearen bitartez.
 - Ordainketa-agiri bidez, banku-entitatean aurkezteko.
- IZENPEren erregistro-entitatera bertaratu eta ordainduta, banku-txartel bidez.

4 ZIURTAGIRIAREN PROFILA

Kontsultatu www.izenpe.com web-gunean.

5 ALDAKETAK

5.1 Aldaketaren kudeaketa

Dokumentu honetan egiten diren aldaketak IZENPEren Segurtasun Batzordeak onartuko ditu.

Berriazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak www.izenpe.com helbidean kontsultatu ahal izango dira.



5.2 Aldaketen kontrola_1. 0 bertsiotik 1.1 bertsiora

Eskakizun osagarriak	<ul style="list-style-type: none">➤ 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Araudira egokitzea.
Eskakizun eguneratuak	<ul style="list-style-type: none">➤ Eskatzen den dokumentazio identifikatzailea.➤ Erabiltzeko terminoak eta baldintzak.
Argibideak	
Editoriala	
Ezabatutako eskakizunak	<ul style="list-style-type: none">➤ Entrega- eta onarpen-orria.➤ Erabiltzeko baldintzak.➤ Harpidedunaren kontratua.

5.3 1.1. bertsiotik 1.2. bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	<ul style="list-style-type: none">➤ 1.2. Euskarria eta segurtasun-maila.➤ Ziurtagiri profesionalen jaulkipena, soilik txartelean / token USB.1.4 euskarrian: beste OID bat esleitzen da txartela / token USB euskarrian jaulkitako ziurtagirietarako.➤ 2.1. Identitatea egiaztatzea. Europar Batasunaz kanpoko hiritarrei eskatzen zaizkien identifikazio-agiriak eguneratzea: AIZ eta pasaporteak.
Argibideak	
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	<ul style="list-style-type: none">➤ 1.2. atala. Euskarriak: HSM euskarriko ziurtagiriak jaulkitzeko aurreikuspena ezabatzen da.➤ 1.5. atala. Xedapen orokorrak: ZPDan araututako alderdiak hartuko dira aintzat.

5.4 1.2. bertsiotik 1.3. bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	<ul style="list-style-type: none">➤ 1. atala, IZENPEK jaulkitako identifikazio-baliabide berriak definitzen dira:➤ B@K eta B@KQ. 2. atala, identifikazio-baliabide berriei aplikatu dakiekeen jaulkipen- eta entrega-prozedura definitzen da.
Argibideak	
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	



5.5 1.3. bertsiotik 1.4. bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	<ul style="list-style-type: none">➤ 1.1. atala: B@K eta B@K Q-ren definizioak eguneratzen dira.➤ 3. atala: beste 3. atal bat gehitzen da, Zenbatekoa.
Argibideak	
Formatua eguneratzea	
Ezabatzeak	